AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA SAILA

5298

AGINDUA, 2012ko urriaren 29koa, Kulturako sailburuarena, Inés María Pérez Citores andreak Kultura Saileko goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta lege horrek ematen dizkidan aginpideak erabilita, hauxe

EBAZTEN DUT:

1.– Inés María Pérez Citores andrea Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkari izatetik kentzea. Lanpostu horrek 520010 kodea eta 83 dotazio-zenbakia dauzka. Eskerrak ematen zaizkio betetako lanagatik.

2.– Aurreko puntuan esandakoak 2012ko urriaren 30etik aurrera sortuko ditu bere ondorio ekonomiko eta administratiboak.

3.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, eman duen organoaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 29a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.